

PAULAREN SEIGARREN ATZAMARRA

Katixa Agirre; Patxi Gallego



1- Zertan da Paula "ez normala"?

- ☐ Ezkerreko eskuan sei erhi ditu.
- ☐ Eskuineko eskuan sei erhi ditu.

2- Paulak dio bere ama ausarta dela. Zegatik ote?

- ☐ Entziklopedian agertzen delako.
- ☐ Ez baitu utzi medikua seigarren erhiaren moztera.

3- Lehen egunean, eskolako haurrak trufatzen dira, baina egiazki zer pentsatzen dute?

- ☐ Haiek ere sei erhi nahi lituzketela; jeloskor dira.
- ☐ Erhi ttipi hori itsusia dela eta har baten eite duela.

4- Zer erraten du maisuak (irakasleak)?

- ☐ Batzuek grano bat (sor-seinale bat) badutela sudur puntan.
- ☐ Batzuek ez dutela ilerik buru gainean eta ez dela trufatu behar.
- ☐ Tontolapikoak (ergelak) baizik ez direla desberdintasunez trufatzen.

5- Noren pentsamenduak ezin ditu irakurri Paulak?

- ☐ Bere maisuarenak.
- ☐ Miki bere neba (anaia) gehienarenak.

6- Zergatik ezin ditu irakurri?

- ☐ Bera baino aise zaharrago delako.
- ☐ Honek idazle izan nahi baitu, eta besteen buruan sartzen dakielako.

7- Noren istorioa irakurri du Mikik Interneten?

- ☐ Ana Bolenaren istorioa.
- ☐ Rafael italiar pintorearen istorioa.

8- Nork manatu zion potreta bat Rafaeli?

- ☐ Aita Sainduak.
- ☐ Henrike Ingalaterrako erregeak.



9- Zer gertatzen da marrazketa klasean?

- ☐ Klaseko guziak Oierren potretaz trufatzen dira.
- ☐ Paulak Oierren potreta sei erhirekin marraz dezan nahi du Oierrek.

10- Amak Paula lau hostoko hirusta bati konparatzen du. Zergatik?

- ☐ Bere amak ez baitu sekula lau hostoko hirustarik atzeman.
- ☐ Paula amaren lau hostoko hirusta bezala baita, berezia eta balio handikoa.